



Auzotarren esanetan, Zikuñagatik goiko bidera ateratzea arriskutsua da, eta Leku-Zaharren semaforoa jartzea nahi dute.

Zikuñaga berritzeko proposamenak aurkeztu ditu PSE-EEK Udaletxean

■ Auzotarrek eskatu dutena: Leku-Zaharren semaforoa, umeentzako parkea txukundu, kaleetan argitasuna berritzea, Citroen zegoeneko terrenoak txukundu eta auzo barruko trafiko arazoak konpontzea.

ALDERDI Sozialista Zikuñagako auzotarrek bildu da auzoko egoeraren berri jakiteko, eta haien arazoak eta proposamenak Udaletxean aurkeztu ditu. Sozialistek adierazi dute gauza bera egin zutela Karabel auzoan eta orain hango proposamen gehienak 2004ko udal aurrekontuetan bilduta daudela.

PSE-EEren esanetan, Zikuñagatik bost eskaera nagusi jaso ditu: auzoaren mantenimendua, trafiko arazoak, argitasun falta kaleetan, umeen parkea konpontzea, eta Citroenek zituen terrenoen egoera. Auzotarrek Alderdi Sozialistari adierazi diotenez, puntu horixe da, hain zuzen ere, arazo larrietako bat. Inguru hori erabat utzita dago, nonbait, eta arratoiak

dabiltza. Horren gainean, PSE-EEK eskatu du Udalak exijitu diezaiola jabeari inguru hori garbitzeko, edo Udalak berak garbitu dezala. Leku horretako bailak kentzeko ere eskatu dute sozialistek.

Semaforoa Leku-Zaharren PSE-EEK bildu duenez, Zikuñagako auzotarrek trafikoarekin ere badituzte zenbait arazo. Batetik, semaforoa jartzea nahi dute auzoaren kanpokaldetik dijoan bidean (Leku-Zaharra parean), auzotik ateera arriskutsua delako, bai kotxeentzat eta baita oinezkoentzat ere. Karretera hori Diputazioarena da eta Udalari eskatu diote bitartekari lanak egiteko.

Zikuñaga barruko trafikoan ere konpondu beharreko

Lehen Citroenek erabiltzen zituen terrenoetan arratoiak dabil-tzala diote auzotarrek. Udalari eskatu diote jabeari garbitu arazteko edo berak garbitzeko.

zenbait puntu ikusten dituzte auzotarrek, PSE-EEK Udalean aurkeztu duen eskaeraren arabera. Hauxek dira: Zikuñagako rotondan poligonotarako seinalizazio egokia jartzea, kamioiak ekibokazioz auzora ez sartzeko; auzo barruko rektan trafikoa mantsotzeko bitartekoak, ispilu bat kruze batean, eta auzo barruko seinalizazioa hobetzea.

Argitasun arazoa aztertu Zikuñagako auzotarrek auzoko argitasuna hobetu beharra ikusten dute. Horretarako eskatu dute auzo osoko azterketa bat egiteko, behar guztiak kontuan hartzeko. Auzotarrek planteatzen duten puntu konkretu bat da etxeetan erantsita dauden farolak kendu eta lurrean jartzea berriak.

Auzoaren mantenimenduari dagokionez, eskatu dute kirol pistako plastikozko alkantarila kendu eta metalzkoak jartzea haien lekuan, eta beste zenbait lekuetakoak ere konpontzea. Jardinari txukundu bat ematea ere proposatu dute, eta auzoko ume parkeari lurra berria jartzea ere bai, orain harri txintarra duelako. □

Boliviako herri indigenei buruzko hitzaldia

HITZALDIA dago gaur Biterin, arratsaldeko 19:30etan, Boliviako herri indigenei buruz. Hernaniko Kooperazio Taldeak antolatu du hitzaldia eta beren esanetan Boliviako herri indigenak beren esku-bideak bideratzen ari dira, lurra, kultura, ohiturak, autogestioa eta abar. Manuel Egiguren Beni-ko gotzaiak hitz egingo du. □

Hernani Kirol Elkartek asanblea du gaur

HERNANI Kirol Elkartek asanblea du gaur informazioa emateko. Klubaren hitzetan Kirol Patronatuarekin arazoak izan dituzte eta gauzak aldatu ezean "larria izango da Klubarentzako eta zer esanik ez Hernaniko kirolarentzako". Dei egin die Kirol Elkarteko kirolari eta gurasoei (judo, saskibaloia, mahai tenis, igeriketa, waterpolo eta boleibol) eta nahi duen guztiari. Gaur, 19:00etan Langile ikastola-ko Laubidieta ikastetxean. □

Udala eta Inem-ek hitzarmena sinatu dute, udaran 8 langabetu lanean aritzeko

HERNANIKO Udalak eta Inem-ek hitzarmena sinatu dute eta horren bidez 8 langabetu Udal lanetan ariko dira, udan brigadarekin eta udazkenean udalak aurrikusitako beste zenbait lanetan. Langile hauei gutxieneko soldata jasotzea egokituko litzaieke. Baina, Txema Mercado Lan zinegotziaren hitzetan "gutxieneko soldata ez da batere duina" eta obra eta lan sailetik diru gehiago emango die. □

Bonobusari buruzko batzarra gaur

ELKARTZENEEK batzarra deitu du gaur, 20:00etan, Biterin, autobus gorri eta urdinean bonobusa jartzea eskatzeko. Kolektibo eta pertsonen azaltzeko dei egin die Elkartzenek. □

MARI FE
ARRANDEGIA
ORDUTEGIA
GOIZEAN: 8:00 - 14:00
ARRATSALDEAN: 16:30 - 20:00
NAGUSIA 36 943 550 489

Fisioterapia
KIMERA
Antziola 16 behe. ☎ 943 556 427
LESIO TRATAMENDUAK:
- Traumatologikoak: esgintzeak, kontrakturak, ...
- Reumatologikoak: tendinitis, artrosia, ...
- Neurologikoak: hemiplejiak, paralisia, ...
- Kirol Lesioak: fibra hausturak, sobrekargak
TRATAMENDU TEKNIKAK:
- Osteopatia
- Masajea
- Eskuzko terapia
- Elektroterapia: ultrasonidoak, "onda korta", ...
ISTRIPU ASEGURUAK ETA ETXERKO ATENTZIOA

AITAN - ETXE
TABERNA
ASTEBURUETAN AFARIAK
Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46
Hernani

PROKOLOR ZENTRUA
MARGOAK
Landaribar, s.l.
► Industri ta dekoraziorako pinturak
► Lurrak jartzen ditugu
► Pintatutako paperak
Kardaberaz 45 - Telf.: 943 55 21 31 - Hernani

dekorazio proiektuak
gremio koordinaketa...
Iñaki Alkorta
barne diseinua
Kardaberaz 39 - www.inakialkorta.com - 943 335431

Telf.: 943 551494 / 943 551912
Fax: 943 551130
GESTORIA
ZULAIKA
ASESORIA
Kardaberaz 68
Hernani 20120



Bazkaritan jende asko elkartu zen Elizatxo ikastolako jolas tokian.

Giro ona Elizatxo Ikastolako festan

JOAN den asteburuan egin zuten Elizatxo Ikastolako festa eta primerako giroa izan zuten ikasle, irakasle eta gurasoek. Guraso Elkartek eta irakasleek antolatutako festan denentzako moduko egitaraua izan zuten: dantza, aerobitona eta pailazoak goizean eta bazkaria ondorenean. Arratsaldean, berriz, jokoak, gaztelu puzgarriak eta Oskarbi taldearekin dantzaldia izan zuten.

Kurtso bukaerara iristera goaz eta kurtsoko balorazio ona egin zuten Elizatxoko arduradunek, larunbateko festa giroan. Datorren urterako erronkatarako bat intranet ordenadore sarea ikasleentzat ere jartzea izango da Kronikari esan diotenez. □



Umeek jolas egiteko nahikoa aukera izan zuten.



Peli Goia eta Ramon Apaolaza Xalapartako museko txapeldun. Xalaparta elkarteko mus txapelketako txapeldun Peli Goia eta Ramon Apaolaza gelditu dira, aurten, 22garren edizioan; bigarren Martin Etxeberri eta Goñik egin dute; hirugarren, berriz, Julio eta Zumarra gelditu dira. Jokalarien artean 2 ordulari ere zozketatu zituzten sari banaketan eta Erdozia eta Goikorentzat izan ziren. Joan den larunbatean izan zuten urteurreneko afaria Xalapartan eta 62 lagun elkartu ziren mahai bueltan. Argazkian museko saritu, sari emaile eta elkarteko ardura-dunak, sariak eman ondoren. □

■ ERREMONTEA

Jokin Etxabe gaur Galarretan

ERREMONTE jaialdia dago gaur Galarretan, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Partidu estelarrean, Jokin Etxabe Hernanin bizi den azkoitiarrak jokatu du Bitoriarekin, Altuna I-Auzmendiren kontra. Beste partiduak dira: Zalakain-Astibia/Uterga-Martinez I, Iribarren-Aizpurua II/Matxin III-Olazar eta Matxin IV-Urko/Juaristi-Agirrezabala. □

San Joan Konpartsak eta Jai Batzordeak bilera

SAN Joan konpartsan desfilean atera behar duen jendeak bilera du bihar, arratsaldeko 19:00etan Deportibo tabernan. Bestalde, Jai Batzordeak ere bilera izango du bihar jai hasiera eta bukaera antolatzeko, 20:00etan Deportibon. □

■ PELOTA - KRONIKA TXAPELKETA



Villar pelotari ematera beste hirurak begira dituela.

Legarreta-Ezeiza eta Zelaia-Urdangarin Kronika Txapelketako finalean

JOAN den larunbatean jokatu ziren Kronika Eskupelota Txapelketako finalaurreko partiduak Tilosetan eta bi partiduetan emaitza bera izan zen. Joxe Urdangarin eta Iñaki Zelaia 22-7 irabazi zieten Paulo Miranda eta Fernando Goiari eta Xabier Legarreta eta Gorka Ezeizak ere 22-7 irabazi zuten Jon Ander Villar eta Iker Urabai- enen kontra.

Finala larunbatean

Aurtengo Kronika Txapelketako finala Legarreta-Ezeiza eta Zelaia-Urdangarin artekoa izango da. 3-4 postuak, berriz, Villar-Urabai eta Miranda-Goiak jokatu- ko di-

tuzte. Partiduak 18:00etan hasiko dira, datorren larunbatean, ekainak 19, Tilosetan.

4 Txapelketa

Aurtengoa laugarren Kronika Txapelketa da eta orain artean txapeldun desberdinak izan dira beti. Lehen urtean, Tutu eta Iturbe gelditu ziren txapeldun: 2002an, Zabala eta Garmendia; iaz, berriz, Ezeiza eta Legarretak irabazi zuten. Aurtene ere finala parekatua espero da, Legarreta-Ezeiza jotzaile haundiak baitira, baina, Urdangarin Zelaia 4garren baitiote. Ikusiko da 4garren edizio honek txapeldun berriak dituen edo txapelak berriz Aranora dijoazen. □

🔪 JASOTA BEZALA

HZko langile finei, maitasunez

Ilegalizazioa gaudituz, mehatxuei aurre eginez, boto balio-gabeen mamuari kasu egin gabe eta Europak sortzen duen aspergarritasuna irabazita, Hernaniko boto emaileen % 40k HZri eman dio botoa. Ezker abertzaleak garaipen zabala eta ederra, izan duen gozonenetako bat nere iritziz, lortu du. Horrelako emaitzak ezker abertzaleak herri honekiko duen zintzotasuna eta leialtasuna saritzen dute

zalantzarik gabe, baina baita ere hainbat eta hainbat lagunen lan fina eta etengabea. Hauteskunde kanpaina hau lan horren erdia izan da, lan gogorra egin da: botoak egiten, jasotzen, banatzen, propaganda jarri, mitinak, eta abar. Estresantea izan da batzuentzat, badakit, eta korrika eta presaka aritu behar izan da askotan, batez ere ertzaintza ibili izan delako HZko jendearen atzetik. Horregatik, zuei, nere esker beroenak.

Mikel Arrieta Iraola

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶Taxiak: 943 550093
- ▶Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶DYA: 943 464622
- ▶Autobusak: 943 556662
- ▶Anbulatorioa: 943 006666
- ▶Jokalaria anonimoak: 943 331103
- ▶Alkoholiko anonimo: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶Egunez: Correa Perkaiztegi 8 ☎ 943 551933
- ▶Gauzez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 ☎ 943 361774

IRAGARKI MERKEAK

Nissan Primera salgai. SS-AN. 1.200 euro. Interesatuak deitu: **661 86 22 19**

Langile autonomia behar dugu, janari dendan lan egiteko. Deitu: **657 79 29 48**

Bi ohe artikulatu (motorrarekin artikulatzen dira) dauzkat salgai. 90 zmk zabalerarekin dute eta berri berriak daude. Prezioa adosteko Deitu: **943 33 37 67. 943 33 05 84**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

Tabernan lan egiteko pertsona bat behar da. Deitu: **615 74 87 27**

Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko. Deitu: **616 28 62 13**